

Martzelinoren galtzak

Deia, 1978-01-04.

Ez naiz Orexa jaunaren galtzez ari. G herriak urtearen hasieran aldatzen dituen bezala. "Urte-berri, urte-zahar, Martzelino galtza zahar; urte zahar, urte-berri, Martzelino galtza berri".

Martzelino, kasu hontan, gure herria da.

Eta, galtzak?

"Galtzak", hizkuntza askotan, ohialez egindako jantziak gainera beste zerbaitekin adierazi izan du. Hala esaten zen norbait "prakadun" gizona zela, edo (eta galtzak andreak zeramazkitelako), galtzik ez zuen *gixona*. Gaur honek ez du objektiboki honenbeste esan nahi, edozeinek, andre ala gizon, jaten baititu galtzak.

Hala ere, lehengo esaera zaharrak ez du oinarritzko zentzurik galdu.

Galtzak, "galtzak" dira.

Inork ez du nahi, itxuraz ere, bere galtzik jetxi nahi: eta, aitzitik, denak gerrian ondo finkatuak ditugula adierazten ahalegintzen gara.

Hizkuntza gehienetan, ba, "galtza" edo "praka" hoiek ba dute gizatasunaren adierazgarri bat, eta nabarmenki, gurean ere bai. Batez ere hasieran aitatu dugun esaera hontan: urtea uzterakoan, galtza zaharrak utzi eta berriak egin behar dira, urte berria galtza berriekin batera estreinatzeko.

Eta, hontan, zertan dira gure aurtengo galtzak?

Aurtengoan, ba dirudi gure galtza berriak, delako pre-autonomia edo autonomi-aurreko hontan daudela.

Arazoa hontan datza: batzuentzat, galtza hoiek ez dira "galtzak", petatxo osatutako "galtzontsilo" batzu baino. Neretzat, arrazoi dute; nik ere ez ditut aurtengo galtza berri hoiei guk behar eta nahi genukeen, merezi ditugun, eta zor zaizkigun!, neurrikoak ikusten.

Baina joan den urtearen azkenean larrugorritan geunden, ordea.

Berrogei urtetan egon gara galtzarik gabe.

Oraingo hoiek ez dira gu gizon senti arazteko neurrikoak.

Baina gure herria, Herri senti eta izan da azken berrogei urte hoietan. Hala sufritu du, gizon bezala. Ohituak gaude praktikan gabeko herria izaten historian zehar. Hala ere ez dugu gizatasunik galdu. Gure esaera zaharrak eskatu izan diguna, ez da galtza dotoreago bat, gizatasun handiagoa baizik, herritasunaren neurri zuzen eta tenteagoa baizik. Eta hori, ez da ematen digutenaren arabera etorriko, guk egiten dugun neurrian baizik.

Eta aurtengo neurri bezala: egin dugu pauso bat; laburra izango da, praktikan bezala; baina gure burua eta soina jatzeko bidean abiatuak gara.

Datorren urtean galtzak aldatzerakoan, neurriz aurtengoak baino osoagoak eta luzeagoak izateko bidean jarriak gara.

Martzelino-k praktxo berriak estreinatu ditu aurten.